

# MOKO eta KAPMELE

*mlh*



## San Marcoseko Plangintza Integrala eztabaidagai

Joan den asteazkenean, azaroak 27, San Marcos Mankomunitateak prentsaurrea egin zuen, urrian mankomunitateak onartutako Hiri Hondakin Plangintza Integrala jendeaurrean aurkezteko. Plangintza hiru hilabetez egongo da aztergai, hiritarrek eta elkarteek helegiteak eta iradokizunak egin ditzaten. Ho-

rrez gain, informazio batzarrak egingo dira zabortegia erabiltzen duten udalerrietako teknikariek eta herritarrekin, plangintzaren nondik-norakoan berri izan dezaten. Donostian hiru bilera egingo dira, bakarra udal teknikariek eta bi herritarrekin. Ondoren, otsailean behin betiko plangintza onartzea espero da.

### Planaren aurkezpenak

Abenduaren 18an, 09.00etan, Ernest Lluch kultur etxean

Urtarrilaren 23an, 18.30etan, Koldo Mitxelena kulturunean

San Marcoseko arduradunek jakinarazitakoaren arabera, zabortegia 2006an itxiko da eta plangintza integralaren helburu nagusia mankomunitateko 12 herrietako zaborren tratamenduari alternatiba bat bilatzea izango da. Asmo horrekin, hiru proposamen mahaigaineratu dira: birziklapena bultzatzea, hondakinak gutxitzeko politika eraginkorrak indarrean jartzea eta errausketa-planta bat eraikitzea. Planta hori Donostialdean eraikitzea aurreikusi da. Hala eta guztiz ere, kokapen zehatza oraindik zehazteko da.

Plangintzak, bestalde, 2002tik 2016ra bitarteko jarduna finkatu nahi du. Gipuzkoako Foru Aldundiak epe hori ezarri die Gipuzkoako zabor mankomunitateei Europako Batasunaren legeak agindutakoa bete dezaten.

Plangintzari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, mankomunitatearen egoitzara (Gasteiz kalea 5) edo webgunera ([www.gipuzkoa.net/san-marcos](http://www.gipuzkoa.net/san-marcos)) jo daiteke.

